

Prentsa oharra

Nota de prensa



Martxoaren 8a, Emakumeen Nazioarteko Eguna

DONOSTIAK EMAKUMEEK TOKIKO HISTORIARI ETA EKONOMIARI EGINDAKO EKARPENAK IKUSARAZIKO DU

Martxoaren 8a Emakumeen Nazioarteko Eguna da, aldarrikapenerako egun garrantzitsua, mendeetako historiaren sinboloa. Martxoaren 8an, ehungintzako emakumezko langile batzuen feminizidioa ekartzen da gogora, duela mende bat baino gehiago erreta hil baitziren, New Yorken, haien lan-eskubideak aldarrikatzen ari zirela. Egun egokia da, halaber, berdintasun erreal eta efektiboa lortzeko borrokatu diren eta borrokatzen ari diren garai guztietako emakume guztiak gogoan izateko.

Berdintasuneko zinegotzi Ane Oyarbidek adierazi duenez, “2022 honetan, Udalak agerian jarri nahi du emakumeek historiari eta hiriarri egindako duten ekarpena”. Helburu hori jasota dago Donostiako Udaleko Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako IV. Planean, eta hori lortzeko neurri eta proiektu asko biltzen ditu.

Oyarbidek adierazi duenez, “emakumeen eta gizonen benetako berdintasuna lortzeko bidean, ezinbestekoa da emakumeek eremu publikoan parte hartzea eta egiten dutena publikoki aitortzea. Urte urte errepikatzen den lelo baten antzekoa da, baina ez dago sobera gogoratzea, Donostian ere, emakumeak gizonak baino gehiago garela kuantitatiboki, baina, zoritxarrez, atzetik jarraitzen dugula kualitatiboki. Oztopoak, desberdintasunak, kristalezko sabaiak eta beste hainbat oztopo haustea ezin utzizko helburua da oraindik ere”.

Donostiako Udalak martxoaren 8aren inguruko erakunde-adierazpen bat onetsi du, baina indar politikoek ez dute hura aho batez onetsi.

LANGABEZIA FEMENINOA DA ORAINDIK ERE

Martxoaren 8a dela eta, Udalak, Donostiako Ekonomia Bultzatzeko eta Sustatzeko Zinegotzigoaren bitartez, jardunaldi bat antolatu du. Jardunaldia bezperan izango da, martxoaren 7an, astelehena, 18: 00etatik aurrera, Udaletxeko Osoko Bilkuren Aretoan. Emakume langileek hirian duten papera aldarrikatzeko jardunaldia, hainbat profil profesional eta sozialekin.

Jardunaldi horretan, Marisol Garmendia zinegotziak Donostiako emakumeen lan-merkatuaren egoera azalduko du. Bertan, langabeziak emakume-aurpegia izaten jarraitzen du, eta emakumeen enpleguaren aldeko politika aktiboak nabarmentzen dira. Politika aktibo horiek 3 milioi eurokoak dira, prestakuntza profesionalari eta 2.000 emakume baino gehiagoren birlaneratzeari laguntzeko, bereziki 45 urtetik gorako langabeak.

Prentsa oharra

Nota de prensa

Adibide bat jartzearren, joan den urtarrilean, Donostian langabezia-indizea biztanleria aktiboaren %8,6koa izan zen, ehuneko 1,6 puntuko genero-arrakalarekin. Nahiz eta arrakala hori Gipuzkoakoa (2,7) edo Euskadikoa (3,0) baino txikiagoa izan, emakumeak lan-merkatuan duen benetako desberdintasuna adierazten jarraitzen du. Marisol Garmendiak adierazi duenez, gizonak baino 1.000 emakume gehiago daude langabezian.

Gai horri buruz hitz egiteko, ISEAK fundazioko ikertzaile Lucía Gorjónek parte hartuko du jardunaldian, eta, ondoren, enplegua lortzeko berdintasunaren aldeko apustuari buruzko mahai-ingurua egingo da. Bertan, Mestiza elkarteko Ana Molinak, Reaktiva T + 45 programako Mayka Sánchezek eta Charo Casteres ekintzaileak parte hartuko dute.

Día Internacional de la Mujer

Encuentro "Apuesta por la igualdad en el empleo"

Lunes 7 de marzo, a las 18:00 h

Salón de Plenos del Ayuntamiento de San Sebastián



Martxoaren 8aren inguruko hainbat jarduera

Azken urteotan bezala, emakume-elkarteek, mugimendu feministek, Donostiako Udaleko Berdintasun Bulegoak, haurtxokoek, gaztelekuek eta Donostia Kulturak hainbat ekitaldi antolatu dituzte. Horien guztien berri liburuxka batean jaso da, eta Udalaren webgunean ere kontsulta daiteke. Oraingo honetan, 68 jarduera dira.

Berdintasun Bulegoak urteak daramatza autodefentsa feministan lanean, eta lan-ildo garrantzitsu bihurtu da. Bulegoak tailerrak antolatzen ditu, urtero, indarkeria matxistak identifikatzeko eta borrokatzeko. Tailer horietan parte hartzeko, Donostiako Emakumeen Etxearen webgunean eman daiteke izena :

www.donostiakoemakumeenetxea.com.

Gazteria Bulegoak ere jarduerak antolatu ditu haurtxokoetan eta gaztelekuetan, adin-tarte horietara egokituta. Jarduera horien guztien helburua da emakumeen ekarpenak ezagutzea, erreferentziatzeko emakumeak ikusaraztea eta diskriminazio-kasuak identifikatzea. Kultur etxeen sareak ere jarduera-programa zabala osatu du aurten, auzoetako emakume-elkarteen eta talde feministen laguntzarekin. Programan hitzaldiak, zinema-emanaldiak, musika-kontzertuak eta erakusketak sartzen dira, eta informazioa www.donostiakultura.eus eta www.donostia.eus webguneetan kontsulta daiteke.

- Urtero bezala, martxoaren 8an bertan, manifestazio aldarrikatzaile bat egingo da Donostiako kaleetan.

Prensa oharra

Nota de prensa

Jarduera guztiak, mapa batean jasota

Aurten, lehenengo aldiz, Lehendakaritza Zuzendaritzarekin lankidetzan, mapa batean bildu dira programako jarduera guztiak. GeoDonostia tresnaren bidez, jarduera bakoitzaren kokapena eta informazioa ikusi ahal izango da, modu praktikoan, mapako puntuetan klik eginez. Mapa www.donostia.eus atarian kontsulta daiteke.

- Aurten, Concetta Probenzak diseinatu du aurreikusitako jarduera eta ekitaldi guztiak biltzen dituen kartela. Iraganeko, oraingo eta etorkizuneko emakumeen indarra islatu du bertan.

